

ek!

eta kitto!
euskarra elkarteak

2025eko otsailak 28 · 1345 zenbakia

HAS DADILA MOZORRO-DANTZA



Recalde

Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zune mugikorarekin
eta iritsi
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com



**BISITATU GURE
PISU PILOTUA**



**Erreserbatu orain zure
etxebizitza eta ez ordaindu
eskritura-gasturik**

**Malatzaren
30** era
arte bakarrik!

**2, 3 edo 4 logelako
etxebizitzak**

Bizikleta-aparkalekuak | Gimnasioa
Jolasguneak | Gourmet aretoa

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4-3, 3 D lokala
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70
abogada@martavalera.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eu



@etakitto



Koko-mokoak Errebal Plazan elkartu ziren zapatuan goizean goiz herriko zenbait baserritara koko-eskean joan aurretik. Bertan, koko-dantzak eskainiko zituzten eta arratsaldean herriaren erdigunean ibili ziren dantzan iluntzera arte. Eguraldia lagun, demaseko giroa sortu zen herrian.

eta kitto!
euskara elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Fernando Retolaza

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



(*...eta kitto! k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Patxi Arriagari esker oneko agurra

Joan zen astean hil zen, gazteegi, Patxi Arriaga mendizalea. Irakurle gehienoi ezezaguna egingo zaizue, baina joan zen mendeko 80ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoan mendian ibiltzen ginenok asko dugu Patxiri eskertzeko. Deporreko mendizaleok mendian ibiltzeko genuen modua irauli egin zuen 1988tik aurrera. Aurrez mendi irteera gehienak tontorrera igo eta ondoren jaitsiz egiten ziren, baina Patxi zeharkaldiak lantzen eta antolatzen hasi zen. Autobusak erabiliz, gune batean oinez hasi eta beste batean amaitzen zen ibilaldia. Horrek izugarritzko aukerak eskaintzen dizki-gu mendizaleoi, mendizerrak, aranak eta herriak ezagutzeko. Gainera, zeharkaldiak kateatu egiten zituen, eta Euskal Herriko lurraldeak ezagutzeko aukera paregabea izan genuen. Lehenik, 1988an Belagoatik Biriatura etorri ginen 10 etapatan; hurrengo urteetan, urmugetatik Belagoatik Urduñara; gero Hego Euskal Herriko hiriburuak elkartu genituen, ondoren Iparraldekoetara luzatuz, eta abar.

Gaur egungo baliabideekin hori egitea ez dirudi zaila denik, baina kontuan izaten badugu garai hartan ez genuela GPS-ik, Wikiloc ez zela existitzen, ezta satellite bidez datuak erlojuan edo telefonoan jasotzeko modurik ere, kontuak aldatu egiten dira. Ibilbide bakoitza behin eta berriz bertara joanez landu behar izaten zuen, datu guztiak detaile haundiz jasoz eta papereratuz. Ondoren, gu orri horiekin irteeretara joaten ginenean nahiko modu autonomoan ibiltzeko aukera izaten genuen, horrek zekarren abantailarekin. Ez dugu esango ez ginela inoiz mendian galdu, baina hori gertatzen zen Patxik emandako argibideak zehazki ez jarraitzeagatik.



Hain interesgarria ikusi genuen mendian ibiltzeko modu hura orain, 35 urte geroago, era beretsuan egiten direla Deporreko mendi irteera gehienak. Horrez gain, Patxik urteetan jarraitu zuen Deporreko kide izaten eta hainbat gauzatan laguntzen; esaterako, ezin dugu ahaztu 1999an Deporreko 75. urtebetetzean Pirinioetako 3.000 metrotik gorako mendi guztiak igotzeko antolatu zen ekimenean izan zuen parte-hartze garrantzitsua.

Zoritxarrez, orain dela urte batzuk, lanetik jubilatzea pentsatzen ari zela, minbizia gorputz barruan bere lan maltzurra egiten hasi zitzaion. Nahiz eta gogor borrokatu gaitzaren aurka, azkenean otsailaren 19an eman zuen azken hatsa.

Agur Patxi, hire lanari esker mendiaz hainbeste gozatu dugun Eibarko lagunok ez haugu inoiz ahaztuko. Naturak gozo eta errespetuz har hazala, hik bera errespetatu, maitatu eta zaindu huen bezala.

Deporreko Mendi Batzordea

Lasterketetan laguntzeko deia

Txirringularitzaren euskal harrobia zaindu eta bultzatzeko egiten dugun ahaleginean gero eta beharrezkoago dugu jende guztiaren laguntasuna, batez ere antolatzen ditugun lasterketen segurtasunari erreparatuz, gaur egungo egoerak eramaten gaituelako errepideetako gurutzebide

eta horrelakoetan oinezkoen beharra izatera. Jakizue horretarako ez dela beharrezkoa gure Eibarko Txirringulari Elkarteko bazkide izatea. Laguntzeko prest bazaude, jarri gurekin harremanetan clubciclistaieibarres@gmail.com helbidean edo 943-203480 telefono zenbakian.

Eibarko Txirringulari Elkartea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PENTSAU (NOR-NORI) → Iruditu, begitandu. “Zer pentsatzen jatzu holan egiten badogu?”.

PERKATX → Pertsona arduratsua, argia. Normalean neskei buruz esaten da. “Ume perkatxa dator zuen hori”.

1889

Eibarko Alhondiga

Urte hori ikusten da fatxadan. Ez dakigu zein urtetan egin zuen argazkia Indalecio Ojangu-renek, baina Gerra aurreko Eibarren egon zen edertasunaren adibide bat baino ez da. Barkurutzte inguruan egon zen, bi lokal zeuden, biltegi gisa erabiltzeko, eta eskola publikoak eta telegrafoaren bulegoa ere bertan zeuden.



Farmaziak

BARIXAKUA 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 1
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 2
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 3
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
MARTITZENA 4
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 6
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 7
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Eutimio Gutierrez Gonzalez.**
91 urte. 2025-02-19.
- **Juana Martin Bernal.**
73 urte. 2025-02-20.
- **Benita Gordo Salazar.**
90 urte. 2025-02-21.
- **Marina Etxebarria Arizmendi.**
93 urte. 2025-02-21.
- **Francisco Javier Agote Gurrutxaga.**
80 urte. 2025-02-21.
- **Angustias Tesouro Quintas.**
92 urte. 2025-02-22.
- **Luis Javier Oregi Zabaleta.**
80 urte. 2025-02-23.
- **Eusebio Rodriguez Alonso.**
88 urte. 2025-02-24.
- **Antonia Artetxe Ansola.**
88 urte. 2025-02-24.
- **Carmen Garaialde Alustiza.**
84 urte. 2025-02-24.
- **Isabel Carmen Malmierca Alvarez.**
80 urte. 2025-02-24.
- **Isabel Cabrera Azaña.**
93 urte. 2025-02-25.
- **Manuel Pato Gomez.**
91 urte. 2025-02-25.



EAJ buru den sei udal-arloetan zertan ari diren azaldu dute

Urriaz geroztik Eusko Alderdi Jeltzalea sei udal-arlotako buru da eta, herritarrei hori gogoratzearekin batera, arlo horietako bakoitzean zertan ari diren ere azaldu nahi die. Alberto de la Hoz Gorriti taldeko bozeramaile eta Trafiko eta Mugikortasun Saileko presidentek azpimarratu duenez, bere ardurapean dagoen arloan helburua argia da: Eibarko geografia- eta hirigintza-mugen barruan, eibartarrentzat ingurune jasangarriagoa eta atsegina sortzea. Horrek barne hartzen du mugikortasun-eredua birplanteatzea, eta kaleetan pertsonentzako lekua irabaztearen aldeko apustua egitea, hiri-eremua oinezkoentzat eginez eta bizikidetzatza-espazioak sortuz. Aiora Arrieta Arreitunandia Euskara Saileko presidentea da eta, azaldu duenez, euskara herritar guztiei hurbiltzeko eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko hainbat jar-

duera diseinatu dituzte. Jon Perez Illana Gazteria arloko presidentea eibartar guztiek aisialdirako guneak izan ditzaten lanean ari da. Eva Juez Garmendia EAJko koordinatzaile eta Ingurumeneko presidentek azpimarratu duenez, bere arloan Eibar berdeagoa eta atsegina lortzea eta Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana (PMUS) garatzea dira lan-ardatz nagusiak. Berdintasunari dagokionez, Elena Ibañez Anuncibay presidentak azpimarratu du eibartarrek lan handia egiten dutela, udal sailarekin batera. Mertxe Garate Larrañaga buru duen Ego Ibarra, bestetik, Eibarko kultur ondare aberatsa zaintzeko lanean jarraitzen dute. Eta lantaldea osatzeko, Ander Rementeria Basurko zinegotzi jeltzaleen aholkularia eta komunikazio-arduraduna da EAJ/PNV udal-taldean, horrela bere lana indartuta.

Kirol talde ezberdinetako kamiseten zozketa antolatu dute Urkiko jaietarako dirua lortzeko

Urkiko jaiak antolatu ahal izateko rifak saltzen hasi dira auzo horretako jai-batzordekoak. Hainbat talde eta enpresak eman dien babesari esker, kirol-kamisetak sari gisa emango dituzte. Zozketarako boleto bakoitzak euro bat balio du, eta jarraian dauzkazuen toki hauean erosteko aukera dago: Talleres Caño, Bodega, Rioja, Nuevo, Isla de León, El rincón de Aitor, Aisha ultramarinos, Alberto taberna, Tio Palancas, Guridi, Buenos Aires, Borda, La Bolera, Kitto taberna, Kultu taberna, Chido jatetxea eta Unzaga Plaza hoteleko kafetegia.



Udal Liburutegiak 123.732 bisita izan zituen iaz

Liburutegiaren 2024ko jardueramemorian jaso dutenez, 2024an 123.732 bisitari izan dituzte, batez beste 385 pertsona eguneko, 2023an baino %0,42 gehiago. Horietatik, 44.803 goizez etorri dira eta 76.174 arratsalde. 3.591 pertsona inguruk erabili dute ikasketagela.



Pentsio sistema publikoan egon diren aldaketa guztiak laburbildu dituzte

Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea egin dute aste honetan ere eta ehun lagun baino gehiago bildu ziren Untzagan. Azken asteotako martxan, Herri Ekimen Legegilearen aldeko sinadurak biltzen aritu ziren, eta eguazteenan ere hala egin zuten Txaltxa Zelaian, azoka eguna izanik inguru horretan jende asko ibiltzen dela arobetxatuta.

Bestalde, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) azken hamarkadetan Espainiako pentsio sistema publikoan egon diren aldaketa guztiak agiri batean laburbildu ditu. Azpimarratu du-

tenez, “aldaketa horiek nabarmen eragin diote erretiro-pentsioa kobratzen hasi den pertsonari”. Horregatik herritar guztiak irakurtzera gonbidatu dituzte, “besteak beste pentsiodunen zazpi urteko borroka hobeto ulertzeko”. Gure webgunean agiria osorik irakurri daiteke: QR kodea eskaneatuz gero, zuzenean zabalduko zaizue.



Luis Vicente Castellanos de Abajok ordezkaturako du Ana Telleria zinegotzi karguan

Eibarko sozialisten zinegotzi berriak astelehenean egindako Osoko Bilkuran hartu zuen kargua, Ana Telleriak aurreko hilean zinegotzi karguari uko egin ondoren hutsik laga zuen tokia betetzeko. Udalbatzarrean, halaber, PSE-EE taldeko bozeramaile-aldaketaren berri ere eman zuten, Eibarko Udalean lanean aritu zen bitartean Telleriak egiten baitzuen lan hori. Aurrerantzean, baina, Vanesa Hortas izango da Eibarko sozialisten bozeramaile Udalean.



Etxegabetasunaren drama bere gordintasunean ikusarazteko ekimena

Aurreko asteko eguna (otsailak 20) Justizia Sozialaren Eguna zela eta, END plataformak performance bat egin zuen herriko hiru tokitan etxerik gabeko pertsonen eguneroko bizi duten egoera latza ikusarazteko eta arazoa lehenbailehen konpontzeko “premiazko neurriak” har ditzatela erakunde eskatzeko. Kaleko-ekintzan, zortzi pertsonak kalean lo egiteko itxura egin zuten, “Etxegabetasuna

END” mezua zuen pankarta baten aldamenen, eta herritarren artean esku-orriak banatzen aritu ziren berriki eratu den END plataforma ezagutzera emateko. Plataformari buruz gehiago jakin nahi duenak, endkaletikat@gmail.com helbidera mezua bidalita ipini daiteke harremanetan edo, nahiago izanez gero, Instagram sare sozialaren bitartez (@endkaletikat) era jarraitu dezake taldearen lana.





Eibarko haurren premiak eta kezak ezagutzeko diagnostikoa egin dute

Aurreko astean ikastetxeetako haurren partaidetza izan zuen “pleno txikia” egin eta gero, UNICEF erakundeak ematen duen “Haurren Laguna den Hiria” aitortpena lortzeko eman dituzten pausoak azaldu dituzte aste honetan Jon Iraola alkateak eta Sonia Archeli Gizartekintza Arloko zinegotziak. Esandakoari jarraituta, iazko irailaz geroztik aritu dira lanean, “hiriko haur eta nerabeen egoerari buruzko diagnostiko xehatu bat egiteko, lan hori funtsezko oinarria baita Haur eta Nerabeen Tokiko Plana formulatzeko. Azterlan horretan 900 adingabek hartu dute parte inkesten bidez eta, horri esker, gure herriko haur eta gazteen kezka eta premia nagusiak identifikatu ditugu guretzat funtsezkoak diren arloetan, hala nola demografian, familian, osasunean, hezkuntzan, aisialdian eta hirigintzan”.

Txostenak jasotzen dituen alderdi nabarmenen artean, bestalde, azken hamarkadan gertatu den jaiotza-kopuruaren beherakada (%24) eta migrazioaren eragina (17 urtetik beherakoen %13,9) leudeke. Datu sozio-ekonomikoei dagokienez, langabezia-tasa %9,4ra

murritu da eta familien batez besteko errenta %7,3 hazi da azken hiru urteetan (urtean 39.956 euro). Txostenean jasotzen da, baita ere, umeen %62k sentitzen duela helduen errespetua dutela; %36k baino ez ditu ezagutzen bere eskubideak; eta %23k daki zeintzuk diren eskubide horiek modu zehatzean. Gainera, %59k beraiei eragiten dizkieten erabakietan parte-hartze handiagoa izatea eskatu dute, “berreziki, jardueren programazioan eta espazio publikoen diseinuan”. Horrekin batera, Eibarko adingabek bizi-kalitatearen pertzepzioa oso ona da: 10etik 8,6ko batez besteko puntuazioa eman diote. Hala ere, diagnostikoaren arabera haur eta nerabeen %25 urduri edo oso urduri sentitzen dira, eta %36k adierazi dute normalean nekatuta egoten direla. Hezkuntzan, ikasleek %60,2 pozik dago bere eskolarekin eta %82,6k lagun taldea dauka bertan.

Diagnostiko honetatik abiatuta, Udalak 17 erronka nagusi identifikatu ditu, “besteak beste, kontziliazio familiarra hobetzea, ohitura osasungarriak sustatzea, arrisku-jokaerak prebenitzea eta aisialdi inklusiboko gune gehiago egitea”.



Sexu-bizi prebentziorako zerbitzua emango dute Aratosteetan, Untzagan

Beste jai batzuetan bezala, Aratosteetan ere SexuBizi-Gune Morea sexualitate eta harreman osasuntsuak bultzatzen dituen gune mugikorra Untzaga Plazan egongo dela jakinarazi dute: martxoaren 1etik 2rako gauean, 00:00etatik 03:00etara egongo da martxan. Gune horretan sexualitateari buruzko informazioa eskaintzen dute (erotika, plazera, mitoak, orientazioa, nortasuna, infekzioak, gaixotasunak...), eta beste zerbitzu batzuk ere ematen dituzte: kondoiak, sexu-aholkularitza profesionala, sexu indarkeriari buruzko informazioa, eta sexu-erasorik gertatuz gero, babesgunea ere bada.

Trakzio mekaniko ibilgailuen zerga

2025. urteko trakzio mekaniko ibilgailuen gaineko zerga borondatez ordaintzeko epea laster, martxoaren 10ean, amaituko dela gogorarazi dute Udaletik: “Helbideratutako ordainagiriak emandako kontu horretan kargatuko dira, borondatezko aldi horren azkenengo egunean”.



Debabarreneko erronka solidarioa egingo da aurten ere

Janaria eta dirua lortzeko Debabarreneko Zaporeak erronkari eutsiko diote aurten ere, "horrela Grezian kateatuta dauden errefuxiatuei egunero jatordu duin bat eskaintzeko helburuarekin". Gaur arratsaldean egin dute erronka solidarioaren aurkezpena Untzaga gizarte zentroan, eta ekitaldian erronka antolatzeaz arduratzen diren Zaporeak-eko kideak eta laguntzaileak egon dira. Janari-bilketa martxoaren 24tik 28ra bitartean izango da eta, aurreko edizioetan bezala, herri bakoitzean elikagai bat bilduko dute: Eibarren, pardina dilistak; Elgoibarren, garbantzu pedrosillanoa; Deban, Ermuan eta Sorauluzen, arroz luzea; Mallabian eta Mendaron, hodi erako makarroiak; eta Murtikun, arraina kontserban.

Horrekin batera, dirua biltzeko asmoz rifak salduko dituzte, eta sariak Debabarreneko artista independenteek egindako koadroak eta bestelako artelanak izan-

go dira, jabetxe kolaboratzaileek oparitutako afariekin batera. Ohiko martxan, erronkarekin kolaboratzen duten jabetxe bakoitzari artelan bana eman diote zozketa bitartez oparitzeko. Euro bat ordainduta, hauek dira irabazi

daitezkeen sariak: bi lagunentzat afaria Sagarra, Casino Artista Eibarres, Salegi, Baratzte, Belaustegi, Kontent, Bulebu, Piper, Landa eta Kiska jabetxeetan. Eta horiei lotuta doazen artelanak, berriz, artista hauenak dira, orden berari jarraituta, hurrenez hurren: Begoña P. Aizpun, Esteban Oroz, Leire Kareaga, Mauri Martin, Elisabet Eguren, Angel de la Torre, Esther Galarza, Maite Zangitu, Marina Barrena eta Yolanda Capelo.

Tuper solidarioa martxoaren 29an Ermuan

Bestalde, Zaporeak proiektuaren aldeko erronkari amaiera emateko, tuper solidarioa egingo dute martxoaren 29an. Aurten Ermuko Orbe Kardinalaren Plazan egingo da, 14:00etatik 15:00etara: egun horretan Debabarreneko sukaldariek janaria prestatzen eman- go dute goiza, plazan bertan, eta ondoren tuperrak (erdia lentejak bakaillaoarekin, beste erdia arroza Lumagorrirekin eta fruta pieza bat) 5 eurotan erosi ahaliko dira. Ekitaldi horren aurkezpena Ermuko Udaleko pleno aretoan egingo dute, martxoaren 12an, 19:00etan.

ZAPOREAK LESBOS proiektua

www.zaporeak.eus

ERRONKA / RETO DEBABARRENA Solidarioak

EIBAR	ERMUAN
ELGOIBARRI	MALLABIA
DEBA	SORALUZE
MURTIKU	MENDARO

TUPER SOLIDARIOA
ERMUKO Orbe Kardinalaren Plazan
martxoak 29 martxo / 14:00-15:00
5€

BILKETA / RECOPIDA
martxoak 24-28 martxo

“Trumpek zirkoa egiten du, baina neurriak benetakoak dira, batzuentzat hil ala bizikoak”

MARISABEL ALBIZU • Egoaizia



Egoaizia Gobernu Kanpoko Erakundeko (GKE) Lierni Fernandez eta Marisabel Albizu Etiopian izan dira azken asteotan. Egoaiziak abeltzaintzarekin eta nekazaritzarekin zerikusia duen proiektua jarri zuen martxan orain dela urte batzuk, eta orain beste jauzi bat eman dute Mekeleko Unibertsitatean Ikasketa Humanitarioen Zentroa sortuz.

Marisabel Albizu Egoaiziako alma materra da. Besteei laguntzen eman du bizitza guztia, han eta hemen, Perun, Etiopian eta Eibarren, eta gogotsu jarraitzen du lan horretan. Etiopiatik etorri berri, lehen eskutik eman digu han bizitakoaren berri eta zenbait urtetan gerra egon den Tigray eskualdeko errealitatea hobeto ezagutzeko balio izan digu.

Zertan aritu zarete Etiopian? Nolako bidaia izan da?

Alde batetik, Egoaziaren proiektuen jarraipena egiteko joan gara. Etiopiako Tigray eskualdearen egoera oso berezia da. 2022ko abenduan gerra amaitutzat eman zen eta 2023ko otsailetik aurrera laguntza humanitarioa eskaintzen dugu bertan. Horren bitartez bakerako edo hango errealitatea berreraikitzeke zutabeak jarri nahi ditugu.

Nola ezarri nahi zenituzten?

Alde batetik, pentsatzen genuen nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin zerikusia duten baliabideak sustatu behar genituela. Oso gauza sinpleak dira: horrelako gauzak egiteko gai diren taldeak identifikatu genituen eta tresnak, haziak, oiloak eta ahuntzak banatu dizkiegu denbora honetan. Bestalde, urte hauetan ikusi

dugu gerrateak Tigray eskualdea Etiopiatik isolatu duela. Ondorioz, Tigrayk kanpoko laguntzarekiko erabateko dependenzia du eta, beraz, bertako jendea prestatzeko beharra ikusi dugu.

Prestatu zein zentzutan?

Gauzak antolatzeke. Horretarako, dituzten gaitasunak hornitu eta bultzatu behar ditugu. Horrela, ez dute hainbesteko dependenziazirik edukiko eta ez dira kanpotik joaten garenon zain egon beharko, eurak garatuko direlako, euren modura eta euren baliabideekin. Egoera horretan beharrezko laguntza emango diegu, noski, baina euren kabuz egingo dute aurrera.

Nekazaritza eta abeltzaintzarekin lotutako proiektuak aipatu dituzu, baina orain formakuntzarekin zerikusia duen bat jarri duzue martxan. Nola sortu da?

2023tik aurrera beharrianak, ideiak eta abar ikusten joan ginen. 2024ko maiatzean Eusko Jaurlaritzarekin Ikasketa Humanitarioen Zentroa sortzeko diseinua lantzen hasi ginen, hori antolatzea oso garrantzitsua izango litzatekeela pentsatuz, bertako jendea prestatzeko eta eurak gauzak antolatzeke gai izateko. Mekeleko Unibertsitatean jarri dugu martxan eta horren jarraipena egitera joan gara.

Zer moduz doa?



Egoaziak, eLankidetzeta eta Deustoko Unibertsitatearekin elkarlanean, proiektu berria jarri du martxan.

Lehenengo kurtsoa eman da eta proiektua sendotzeko asmoz joan gara. Eusko Jaurlaritzako eLankidetzeta agentziako zuzendaria, Deustoko Unibertsitateko Noa Masterreko zuzendaria, gurekin lan egiten duen aholkulari independente bat, eta Egoaziako Lierni eta biok joan gara. Etiopiak 120 milioi biztanle ditu, oso handia da, eta Tigrayn uste dut 5 milioi lagun inguru bizi direla. Herrialdearen iparraldean dago eta Eritrearekin egiten du muga. Gu Mekelen egon gara, Tigrayko hiriburuan, hango unibertsitateko irakasleekin eta zenbait fakultatetako dekanoeekin, eta proiektua eurena egin dute.

Proiektuak denbora gutxi darama martxan, baina noiz ikusi ahal izango ditugu lehen emaitzak?

Eusko Jaurlaritzarekin bi urterako proiektua sinatu dugu, baina martxan dago. Kurtso bat eman da eta udazkenean beste bi edo hiru ematea espero dugu. Abiadura hartzen joango den proiektua izango da. Beharbada bi urte baino gehiago behar izango ditugu proiektua sendotzeko eta handitzeko, baina badabil. AECID-ekoekin berbetan, ideia zoragarria irudituzitzaie, bertako jendea prestatu behar baitugu. La-

“Laguntza guztiak gauzak eurek eta euren kabuz egitera bideratu behar dira, bestela beste kolonizazio bat izango litzateke eta ez dugu horrelakorik nahi”

guntza guztiak gauzak eurek eta euren kabuz egitera bideratu behar dira, bestela beste kolonizazio bat izango litzateke eta ez dugu horrelakorik nahi.

Ideiak hemen pentsatu eta hara eramaten dituzue ala nola egiten duzue?

Ez, ez dugu horrela egiten. Lehen aipatu ditudanak joan gara bidaia honetan, baina han gure bazkidearekin (elkarlanean gabiltzan GKE-arekin) egon ginen eta eurekin egin dugu bidaia guztia. Ez ditugu gauzak hemen pentsatzen eta hara eramaten, inoiz ez dugu horrela egin. Guk hemen baliabideak bilatzen ditugu, besterik ez. Proposamena Eusko Jaurlaritzarekin

Elkarrizketa osoa
WEBGUNEAN



aztertu aurretik, Mekeleko Unibertsitatearekin eta hango GKE-arekin berba eginda genuen. Elkarrekin beharrak aztertu eta ideiak garatzen ditugu, eta gero hemen baliabideak bilatzen ditugu horiek aurrera eramateko. Dena dela, hango baliabideak ere behar ditugu. Baliabideak eskaintzeko orduan ezin da desoreka handia sortu, eurek ere zerbait ipini behar dute. Horrela, unibertsitateak gure esku ipini ditu gela bat, bulegoa, irakasleak...

Hango jendeak nola hartu du proiektu hau?

Oso pozik daude. Gerra aurretik unibertsitate horrek 24.000 ikasle inguru zituen eta gaur egun 11.000 besterik ez. Kopurua handitu nahi dute, bizitza normaltzen joan den seinale izango delako.

Orain dela pare bat urte izan zineten han. Gerra ahazten doazela ikusi duzue?

Oraindik ezegonkortasun egoeran daudela nabari da. Oso gauza esanguratsuak ikusi genituen. Alde bate-tik, gerrako desplazatuak zelai bat bisitatu genuen. Lau urte daramatzate han eta euren helburu nagusia etxera itzultzea da. “Baina nora?”, esaten dute. Dena suntsituta dago, ez dute zertan lan egin... Arazo bat da. Bestalde, asko nekazariak dira, baina nahiago dute hiri baten inguruan bizi, aukera gehiago izango dituztelakoan. Hori oso ohikoa da, Hego Amerikan ere fenomeno hori ikusi dugu. Hirien inguruan aberastasun gehiago egongo dela pentsatzen dute, baina ez da egia eta azaltzen saiatzen gara. Azkenik, gauza beldurgarri bat ikusi genuen. Otsailaren 10ean joan nintzen eta desplazatuak zelaia 12an bisitatu genuen. Ba Donald Trumpek urtarrilaren 24an hartutako neurriek dagoeneko eragina izan zuten bertan. Lankidetzarako laguntza guztiak itxi egin zituen.

Hango biztanleei nola eragiten die erabaki horrek?

Eragina erabatekoa da. Gainera, janari kontuetaz ari gara berbetan. Bikiak eduki berri zituen familia batekin egon ginen. Zazpikiak ziren eta ohean sartuta zituzten, beroarekin biziraungo zutela pentsatuta, baina lehen jasotzen zituzten elikadura-osagarriak otsailean ez dituzte jaso.



“Tigrayn demaseko sare-komunitarioa dute. Gaitasun handia dute gauzak antolatzeko eta aurrera egiteko”

Nola estaliko da gabezia hori?

Hori da galdera nagusia gaur egun. Trumpek hartzen dituen neurriak ez dira txantxetakoak. Demaseko zirkoa egiten du, baina neurriak benetakoak dira, batzuentzat hil ala bizikoak. Han lenean diharduen GKE batekoek esan ziguten apirilera arte lan egin ahal izango dutela, baina hortik aurrera nork daki. Mundu globalizatuan bizi gara eta dena konektatuta dago, eta Washingtongo Etxe Zurian hartzen den erabaki batek berehala du eragina Tigrayn.

Koko jantzita denak balio du Aratosteak jo eta su ospatzeko

Armairuak astindu eta, zer hartu dugun larregi begiratzen ibili barik, koko jantzi eta ondo pasatzeko egun batzuk dauzkagu aurretik, martitzenean sardina txikiaren entierroarekin batera gure betiko bizimodura bueltatu aurretik.

Argazki gehiago:



BIDEOAK



Eibarren aurreko zapatuan hasi ginen Aratosteak ospatzen, Kezka dantza taldearen koko-dantzari eta koko-marruen eskutik. Lehen agerraldia Errebalen egin zuten, eta egunaren lehen zatia baserrikerik baserri eman zuten ondoren. Aurten Mandiola eta Aginaga auzoetan ibili dira koko-eskean. Arratsaldean, berriz, herriko kaleetan ibili ziren kalejiran, eibartarrak xaxatzen eta kaleak Aratosteetarako girotzen hasteko.

Atzo ospatu genuen Eguen Zuri egunak ez zuen izan beste urte batzuetako kolore eta bizipoza, irakaskuntza publikoan deitutako grebak bete-bete harrapatu eta ikasleen kalejira guztiak ez zirelako egin. Hala ere, haur eta heldu askok ez zuten galdu nahi izan Liskerren erritmora dantzatzeko aukera, eta arratsalde-pasa ederra egin zuten Untzagan.

Kaldereroen kalejira 20:00etan hasiko da

Gaur, berriz, Kaldereroak izango dira jaun eta jabe, beraien kantu eta dantzekin. Kalejira Urkizutik abiatuko da, 20:00etan, eta herriko talde ugari hartuko dute parte. Untzagan amaituko da baina, aurretik, 20:30ean irakurriko du Jon Alonso musiko eta abeslariak

aurtengo Aratosteei hasiera ofiziala emateko pregoia, Eibarko Klub Deportiboaren leihotik.

Bihar kuadrillen kalejira

Biharko jai-egitaraua, bestetik, eguerdian hasiko da: 12:30etik aurrera kaleak rock musikarekin girotzen hasiko dira, eta ordu horretan abiatuko da eguneko ekitaldi nagusia, hau da, Udalak antolatutako kuadrillen kalejira-lehiaketa. Partehartzaileak Untzagatik irten eta Calbeton, Bidebarrieta, Zuloagatarren eta Toribio Etxebarria kaleak zeharkatuko dituzte, Ustekabe eta Sin Juicio fanfarreek lagunduta. Eta bazkalostean itzuliko da jaia: puzgarriak Errebalen (16:30), haurrentzat berbena Mugi Panderoa taldearekin (19:00), animazio musikala Latuna Bando txarangarekin (19:30), lehiaketetako sariak banatzea, eta Mugi Panderoak girotutako dantzaldia, 23:30etik aurrera Untzagan.

Parrandazaleen hobebharrez, bete-betea izaten den Aratoste Zapatuaren biharamona askoz lasaiagoa izaten da: domeka goizean Usartza Txistulari Bandak kalejira egingo du (11:00), eta 17:00etan ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako Umeen Playback Lehiaketa hasiko da Untzagan. Eta, sariak banatu ondoren, DJ Arno arituko da musika ipintzen.



ARGAZKIAK: FERNANDO RETOLAZA





UniEncounter 2025, informatika eta teknologia berrien topagune

Gaur emango zaio hasiera UniEncounter 2025 ekimenari Hezkuntza Esparruan. Bi eguneko egitaraua prestatu dute (lehiaketak, hitzaldiak, tailerrak, musika-emanaldia...) eta Eibar informatikaren eta teknologia berrien topagune bihurtuko dute 20. aldiz, hamarkada baino gehiago baitaramatzate herria etorkizunera begira jartzen.



BIDEOA



UniEncounterrek 20. edizioa beteko du aurten, baina betiko izaerari eusten dio oraindik. Hau da, Uni Eibar-Ermuako informatikaren inguruko zikloetako ikasle eta irakasleek antolatzen duten ekimena da, eta apaltasun eta jakinmin horretatik izen eta ospe handiko egitasmo bat sortzea eta denboran luze irautea lortu dute.

Informatikaren eta telekomunikazioen inguruko erdi-mailako gradu bat, goi-mailako hiru eta beste hiru espezializazio eskaintzen dira Uni Eibar-Ermuan, eta horietako batzuetan ibili izan da eta dabil oraindik ere Ainhize Arrese. UniEncounterren antolakuntzan ere beteranoetako bat da eta berak azaldu dizkigu ekimenaren nondik norakoak.

Benetan antolakuntzari (egitaraua prestatzea, hizlariak aukeratzea eta abar) orain dela hilabete

batzuk ekin bazioten ere, eguazten honetan hasi ziren jaialdirako behar dituzten esparruak atontzen. “Denbora gutxi izaten dugu”, diosku Ainhizek, baina, noski, Unian klaseak emateko behar izan dituzte gero ordenagailuz beteko diren gimnasioa eta abarrak. Hori bai, eguazten goizean talde majoa elkartu zen Gorka Guenagaren esanetara gauzak prestatzeko.

Elesky eta LAN party-a

Topaketa gaur 17:30ean inauguratuko da Elesky piano-joleak Unibertsitateko antzokian emango duen doako kontzertuarekin. Asturiaseko ‘streamer’ famatua da Elesky eta pianoan pelikulen eta bideo-jokoan abestiak jotzen egin da ezaguna. Iaz UniEncounterren egon eta oso zapore ona laga ondoren, aurten ere izango dugu bere arteaz gozatzeko aukera. Gainera, bertaratu ezin duenak etxetik ere



Iaz UniEncounterren egon zen Elesky piano-jole eta streamer asturiarrak erreplikatu du oraingoan ere.

jarraitu ahal izango ditu Eleskyren kontzertua eta beste hainbat ekin-tza UniEncounterren Twitch-eko kanalean.

Urte hauetan guztietan UniEncounterren ikurra LAN Party-a izan da. LAN Party deritzo jolastu eta informazioa elkarbanatu eta elkartrukatzeko ordenagailua dararmaten pertsona ugari biltzen dituen jaialdiari. “Jendeak ordenagailua ekartzen du eta nahi duena egin dezake. Etxean egingo zenukeen bezala, baina beste batzuekin toki berean egonez, horrek dakarrena-ekin”, azaldu digu Ainhizek.

Uniko gimnasioa atondu dute horretarako eta aurten guztira 30 lagun inguru elkartzea espero dutela esan digute antolatzailuek. Gainera, jaialdia gaur hasi eta bihar amaituko denez, bertan lo egiteko toki bat ere prestatu dute. “Hori bai, batzuk mahaian bertan geratu izan dira lo noizbait”, diosku ikasleak.

Pianoarekin pelikulen eta bideo-jokoen abestiak jotzen dituen Eleskyk emango dio hasiera gaur UniEncounterri

Gaur eta bihar artean hainbat hitzaldi, lehiaketa eta informatikarekin zerikusia duten ekintzak egingo dira Hezkuntza Esparruan

Bideo-joko lehiaketak

UniEncounterren ezin dira falta bideo-jokoak, ezta lehiaketak ere. Noski, nor bere ordenagailuan bideo-jokoetan ibili daiteke, baina aurten arkade-makinak ere jarriko dituzte, “ordenagailuan aritzea gus-tatzen ez zaienez”, Ainhizeren berbetan.

Bideo-jokoen lehiaketei dago-kienez, League of Legends, EA 25, Valorant, Clash Royale, Fighting Games eta Pokemon Eskarlata jokoen inguruan txapelketak antolatu dira, antolakuntzakoek jarritako arauekin. Adi, 1.500 euro banatuko dituzte-eta sarietan.

Iaz bezala, Drone Soccer zelai bat ere jarriko dute Flybble-re eskutik. Horrela, parte-hartzaile guztiek futbol partida bat jokatu ahal izango dute doan drone bat erabiliz.

Eta hori gutxi balitz, aurten Game Jam izeneko lehiaketa jarri dute martxan. “Gai batzuk eman-

Game Jam izeneko lehiaketa da aurtengo berritasunetako bat, eta parte-hartzaileek bideo-joko bat egin beharko dute



da, bideo-joko bat sortzea da lehiaketa horren helburua”, azaldu digu Ainhizek.

Hainbat hitzaldi

Alderdi ludikoa albo batera lagata, hainbat hitzaldi eskainiko dira gaur eta bihar Uni-ko kiroldegi inguruan dagoen 016 gelan. Informatikarekin eta teknologiarekin zerikusia duten hitzaldiak izango dira oso gai ezberdinen inguruan, eta adituak etorriko dira horiek azaltzera. Lehena ezik (Uni-ko ikasleei zuzentzen zaielako), beste hitzaldi guztiak publiko guztiarentzat daude irekita.

Gaurkoan, Puntu Eus-eko Josu Arakistainek ‘Unian ikasitakoa, ondoren enpresan’ hitzaldia emango du, Tknika-ko Lara Burgoak ‘Robotika Autonomo Mugikorra’ izeneko solasaldia eskainiko du eta erakunde beretik datorren Ibai Peñak ‘Zibersegurtasuna jende arruntarentzat’ izango du mintzagai.



LAN party-a izan ohi da UniEncounterren ikurretako bat. UNIENCOUNTER

Informatikarekin zerikusia duten hainbat gai landuko dituzte hitzaldiak eskainiko dituzten adituek

Bihar beste hiru hitzaldi eskainiko dituzte: Berritzeguneko Olaia Egurrolak ‘Ekosistema Digital Etiko Burujabea sortzen’ izeneko ponentzia emango du, Deustuko Unibertsitateko Pablo Garaizarrek ‘Zenbat falta da makinak pertsonak baino adimentsuagoak izateko?’ galderari erantzungo dio eta, galderekin jarraituz, Cidetec-eko Leire Bercianos eibartarrak ‘Zein da zure moduko kimikari papera mende honetan?’ erantzuten saiatuko da.



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa... Eskuartean daukagun gehigarri hau lagungarri izango zaizula uste dugu. Eta, informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektoreko adituengana: zure premiei erantzungo dizue.

		www.aukera-inmobiliaria.com 943 12 13 95 Bidebarrieta 29	
Produktu hauek Aukera Inbiliaria-riakoak dira ESKLUSIBAN			
			
Mallabia Ref. 2761 Txaleta. 8 logela, 3 komun. Terrenua eta piszinarekin. Bizitzera joateko. 640.000€	Arikitza Ref. 2750 3 logela, 2 komun, balkoia. Garajea eta ganbara. Igogailua. Kalefakzioa. 340.000€	R. Galdos Ref. 2766 3 logela, komuna. Igogailua. Kalefakzioa. Altzariekin. 170.000€	Urkizu Ref. 2765 2 logela (3.a aukeran), komuna, balkoia. Altua (biatak). Kalefakzioa. Bizitzera joateko. 170.000€
			
Ubitxa Ref. 2742 2 logela, komuna, balkoia. Kalefakzioa. Guztiz jarritia. 125.000€	Legarre Ref. 2678 2 logela, komuna. Igogailua. Kalefakzioa. Berritzeko. 129.000€	Sansaburu Ref. 2713 3 logela, komuna. Pisu argitsua. Kalefakzioa. Altzariekin. Berritzeko. 150.000€	Zeharkale/ERMUA Ref. 2745 3 logela, komuna, balkoi itxia. Igogailua 0 kotara. Oso argitsua. EIT pasata. Erdi jarritia. 135.000€

Nola lagundu ahal zaitugu?

Higiezin agentzien askotariko zerbitzuak eskaintzen dituzte etxebizitza bat erostea errazteko. Hona hemen ohikoenetako batzuk:

1. Aholkularitza pertsonalizatua

- Eroslearen beharretara eta aurrekontura hobekien egokitzen den etxebizitza mota aukeratzen laguntzen dute.
- Gunerik onenei buruzko informazioa ematen dute, lehentasunen arabera: garraioa, ikastetxeak, segurtasuna, etab.

2. Propietateak bilatzea

- Eskuragarri dauden etxebizitzaren eskaintzarako sarbidea.
- Higiezin interesgarrietara bisitak antolatzea.
- Prezioak eta ezaugarriak alderatzea.

3. Izapideak eta dokumentazioa kudeatzea

- Jabetza kargarik edo zorrik gabe dagoela egiaztatzea.
- Eskriturak, zergak eta beharrezko baimenak berrikustea.
- Berme edo/eta salerosketaren kontratua idazten eta sinatzen laguntzea.

4. Prezioa negoziatzea

- Saltzailearekiko bitartekaritza, preziorik eta baldintzarik onena lortzeko.
- Higiezinaren merkatu-balioari buruzko aholkularitza.

5. Finantza- eta hipoteka-aholkularitza

- Banku-finantzaketa lortzeko laguntza.
- Hipoteken konparazioa eta interes-tasei buruzko aholkularitza.
- Kostu gehigarrien kalkulua (zergak, notaritza, aseguruak, etab.).



6. Eragiketa idaztean eta ixtean laguntzea

- Notariotzarekin koordinatzea, eskritura sinatzeko.
- Ordainketa eta izapide guztiak behar bezala egiten direla ikuskatzea.

7. Salmenta ondokoa eta zerbitzu gehigarriak

- Horniduren titulartasuna aldatzea (ura, argia, gasa, etab.).
- Etxebizitzan berrikuntzak edo hobekuntzak kudeatzea.
- Bezeroak behar badu, etorkizunean alokatzen edo birsaltzen lagundu.



F. Calbeton, 22-24
LARRAGEST
AGENCIA INMOBILIARIA
697 258 966 943 200 012

*Eibarko zure
konfiantzazko
inmobiliaria*

fikom

Finkak • Komunitateak
& Inmó

fikom.eus

Esperientzia eta berrikuntza komunitateen kudeaketarako

JABETZA HORIZONTALEAN **ADITUAK GARA,**
ETA ZERBITZU BERRIZTUA ESKEINTZEN DUGU.

943 20 40 77
Errebal kalea 19an
EIBAR



fiko

Finkak • Komunitateak
& Inmó

Es

st

Etxebizitza erosi baino lehen...

1. Ezarri zure aurrekontua

Aurrezkiak: Ziurtatu nahikoa diru duzula hasierako ordainketarako, hau da, jabetzaren balioaren %10 eta %20 bitartean, finantza-erakundearen arabera.

Zorpetzeko gaitasuna: Aztertu zure diru-sarrerak, jakiteko zenbat erabil dezakezun hipoteka bat hilero ordaintzeko, zure finantza-egonkortasuna arriskuan jarri gabe.

2. Finantzaketa lortzea

Diru guztia ez baduzu, finantza-erakunde batera jo beharko duzu hipoteka eskatzeko. Ebaluatu hainbat eskaintza eta interes-tasa zure beharretara hobekien egokitzen dena aurkitzeko. Interes-tasa (finkoa edo aldakorra) eta maileguaren epea (20 urtetik 30 urtera bitartekoa) hartu behar dituzu kontuan.

3. Bisitatu hainbat propietate

Higiezinaren egoera: Ziurtatu etxebizitza egoera onean dagoela. Batzuetan, etxe merkeek konponketa asko eskatzen dituzte. Aditu bat kontrata dezakezu erosi aurretik jabetzaren berrikuspen osoa egin dezan.

4. Legezko dokumentazioa berrikusi

Eskriturak eta jabetza: Etxebizitza saltzen duen pertsona legezko jabea dela eta higiezinarekin zorrik ez dagoela egiaztatu (kitatu gabeko hipotekak).

Lizentziak eta baimenak: Ziurtatu etxebizitzak legezko baldintza eta hirigintzako araudi guztiak betetzen dituela.

5. Negoziazioa eta eskaintza

Jabetza bat baduzu buruan, egin eskaintza bat. Jabetza zure aurrekontuaren gaineratik badago, prezioa negoziatzen saia zaitezke. Jabetza zure aurrekontuaren oso azpitik badago, ikertu ezkutuko arazorik ba ote dagoen prezio hain baxua izateko.

6. Salerosketa-kontratua sinatzea

Bi alderdiek prezioa adostu ondoren, salerosketa-kontratua sinatzeko unea da. Hori, oro har, notario baten aurrean egiten da.


Kontratuak adostutako baldintza guztiak jaso behar ditu: prezioa, epeak, ordaintzeko modua, etab.

7. Eskritura publikoa

Sinatu ondoren, eskritura publikoaren bidez formalizatzen da salerosketa. Horrek legez lotesle bihurtzen du.

8. Jabetza-erregistroa

Azkenik, garrantzitsua da jabetza zure izenean erregistroatzea. Jabetza Erregistroan, jabe berri gisa dituzun eskubideak babesteko.

 <p>SORALUZE INMOBILIARIA 611480198</p>	<ul style="list-style-type: none">- Etxebizitzak eta lokalak bilatzen ditugu Eibar, Ermua eta Gipuzkoa osoan- Zure etxea saiduko dugu 1-3 hilabetetan- Bezero zerrenda luzea dugu- Ez-ordaintze aseguruak gaur egungo kontraluentuentzat- Pisuak saltzen ditugu inkilinoarekin	<p>OSCAR SOUSA (INMUEBLE-AGENTEA) Errebal, 15 -EIBAR- inmosoraluze@outlook.es www.inmosoraluze.com</p>
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

 <p>HIGIEZINAK ARREGI INMOBILIARIA Errebal, 20 943 203 333 www.inmoarregi.com</p>

 <p>dp donpiso IDATU ZAITEZ PROFESIOALETAN BAKARRIK Isasi, 16 EIBAR M. Valdespina, 12 ERMUA eibar@donpiso.es www.donpiso.com</p> <p>Zure etxea saltzeko modurik azkar, erraz eta eraginkorrena 943 82 05 10 / 618 769 839 / 943 53 84 92</p>



Martxoaren 8aren inguruko egitaraua prestatu duen lantaldeak aurtengo edizioaren nondik norakoak azaldu zituen prentsaurrekoan.

Martxoaren 8ak “bizitza duinak” aldarrikatuko ditu

Bizitza duinak ikuspegi feminista eta dekolonial batetik lantzea izango da aurten Martxoaren 8ko ardatza. Eibarko lantaldeak hainbat ekintza prestatu ditu hilabete osorako, astelehenean egindako aurkezpenean jakitera eman zutenek.

ANTOLATUTAKO EKITALDIAK.–

3an (astelehena) 18:00 Andretxea

HITZALDIA: “Zaintza sistema publiko komunitarioa. Hausnarketa feminista batzuk”. Miren Aranguren

7an (barixakua) 19:00 Coliseo

ANTZERKIA: “Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantán”. La Dramática Errante.

10ean (astelehena) 18:00 Andretxea

ERAKUSKETA + BISITA GIDATUA: Bizitza onerako alternatibak. Lumlantik Herriak Gipuzkoan

11n (martitzena) 18:00 Andretxea

DOKUMENTALA: “Historia de mujeres: Nina Simone”. Pagatxa.

11n eta 12an (martitzena eta eguaztena) 09:00 Topalekun

TAILERRA + ERAKUSKETA: Sormen

tailerra. Maite Arriaga.

18an (martitzena) 18:00 Andretxea

HITZALDIA: “Oneka-ren sorrera eta bilakaera”. Emakume pentsionista plataforma.

20an (eguna) 19:00 Topaleku

BAKARRIZKETA: “Gregoria”. Beatriz Egizabal.

21ean (barixakua) 18:30 Portalea

ZINE-FORUMA: “Ellas hablan”. Pagatxa.

25ean (martitzena) 19:00 Portalea

MAHAI-INGURUA: “Emakumea mendiko kirolean”, Eibarko Klub Deportiboa.

29an (zapatua) 16:30 Portalea

KULTURARTEKO TOPAKETA: “Voces de mujeres”, Merlin Medina.

Aurten erabiliko duten goiburua ‘Bizitza duinak guztiontzat eta edonon’ izango da. “Gaur egun gure gizartean nagusi den bizi-ereduak balioan jartzen ditu balore indibidualista, hiperazkarra, kontsumista, atzerakoia eta zaurgarritasunaren kontrakoak, albo batera utziz heziketa edota irakaspen emozional, sexual eta bizitzarekiko jasangarriak direnak”, diotenez. “Bizi eredu hegemoniko hori biolentzia da eta ertzetan kokatzen diren sektoreak modu sistematiko batez erasotzen ditu; besteak beste, pertsona migratu eta arrazializatuak, gorputz ez-normatiboak, emakumeak eta sexu-genero disidentek”.

Sistema horren aurrean, Martxoaren 8ko lantaldeak bizitza duinak sostengatuko dituen eredu aldarrikatzen du, “ekuazio horretan osasun integrala (baita osasun mentala ere), hezkuntza (publikoa eta kalitatezkoa), sexu- eta genero-aniztasunaren normalizazioa; enpleguaren baldintza justuak, zaintza-lanen eta pentsioen banaketa; indarkeria sexistarik gabeko bizitzak, pertsona guztientzako trantsizio ekosozial jasangarria, etabar kontuan izanik”.



JOSU AGIRRE

Edifici sense fum

Lisboan bisitatu beharreko monumentuetako bat Belemgo dorrea da. Tajo ibaiaren alboan, *Wikipediaren* arabera, pare-parean dagoen Jeronimoen monasterioarekin batera, Gizateriaren Ondare izendatu zuen Unescok.

Orain hoguei bat urte emaztea eta biok ezkondu aurretiko uda batean han izan ginen. Egun hartan, garraio publikoan erdigunetik Belem auzoraino iritsi ginen. Autobusetik jaitsi eta, Jeronimoen monasterioaren ondoan dauden lorategi erraldoiak zeharkatuz, tipi-tapa hasi ginen dorreruntz hurbiltzen.

Oso jende gutxi zegoela iruditu zitzaigun. Arraroa benetan, astelehena (alegia, museoak itxita egoten diren eguna) ez izanda. Aldiz, abuztua zen, egun zoragarria egiten zuen eta hiria turistez beteta zegoen.

Orduan erreparatu nuen sarrerako atean kartel bat zegoela, honako abisuarekin: “*Greve dos funcionarios*”.

Hasiera batean “grave” irakurriko nuen eta, beti bezala bizitzak hanka barruraino sartzeko ematen dizkizun aukerak alferrik galdu barik, neskalagunari esan nion:

- Lutxi, begira, hamen itxuria lan-istripuren bat gertatu da. Horregatik itxita egongo da. Gainera bat ez, *bi langile* “grave” daudela ematen du...

Funtzionarioen greba zen Belemgo dorrea itxita egotearen arrazoia, besterik ez.

Handik urte batzuetara, Bartzelonan epaiketa bat egitea tokatu zitzaidan. Denboraz lasai ibiltzeko, aurreko gaua hotelean igaro ondoren, goiz esnatu eta Ciutat de la Justíciara ailegatu nintzen: dozena erdi eraikin erraldoiz jositako eremua, denak berdintsuak... eta bezeroak telefonora deitu zidan.

- Josu, estoy llegando ¿tú dónde estás?

- Pues mira, estoy al lado del edificio... *edificio sense fum*.

Edifici sense fum irakurri nuen eraikinaren kanpoaldeko plakan.

- Ja, ja, no... eso lo pondrá en todos. Significa que no se puede fumar, que es un *edificio sin humo*. Dime de qué color es la fachada y ya te busco.

-Te vas a reír. Soy daltónico.

Tokiko hizkuntza ez ezagutzeak horrelako pasadizo edo anekdotak dakartza. Gurean zailagoa akaso. Portugalen edo Catalunyan ez bezala, Euskal Herrian posible da eroso bizi eta lan egitea urte osoan zehar, bertako hizkuntza ia ezer ezagutu barik.

“Euskal Herrian posible da eroso bizi eta lan egitea urte osoan zehar, bertako hizkuntza ia ezer ezagutu barik”

Martxoaren 6an hasi eta 25ean amaituko dira Eibarko mendi jardunaldiak

Bost ekitaldi izango ditu Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatutako jardunaldi horietako aurtengo edizioak. Lehen biak hitzaldiak izango dira, bigarrena film batek lagunduta. Jarraian Mendi Tour-eko proiektzioak eskainiko dira, bi egunetan banatuta. Eta, amaitzeko, NeguTrail Topaketa



Otsailaren 6an hitzaldia izango da Deporren.

izango da, alde batetik, eta mahai-ingurua bestetik.

Egunei dagokienez, 6an Zigor Egiak “Mendia eta segurtasuna”-ri buruz jardungo du Deporren (19:00etan); 13an Mikel Lizarralde “Zazpi” aurkeztuko du, Bilboko Film Festivaleko euskarazko film onena, Coliseon (19:00); toki berean, eta 18an eta 19an, aipatutako Mendi Film horretako pelikula onenak proiektatuko dituzte (18:30ean hasita); 23an NeguTrail topaketaren txanda izango da, Javier Dominguezekin (08:30ean Deporretik abiatuta); eta, aurtengoa amaitzeko, 25ean “Emakumea mendiko kirolean” gaiaren inguruan jardungo dute lau mendizalek Portalean (19:00etan).

Mendia eta segurtasuna

Izen hori darama datorren aste-ko eguenean, martxoak 6, Zigor Egiak eskainiko duen hitzaldiak. Klub Deportiboaren lokalek hartu-



ko dute ekitaldi hori arratsaldeko 19:00etan. Euskal Mendi Federazioako presidenteorde eta bertako Segurtasun Batzordeko arduraduna da Egia eta Seiburu programa aurkeztuko du, “edozein mendizalek ingurune naturalera irten aurretik kontuan hartu behar dituen sei ideia gakotan laburbiltzen dena”. Gaurkotasan handiko gaia da, “ingurune naturala helmuga turistikoa bihurtu denetik, mendiko erreskatetik esponentzialki hazi direlako”.

SD Eibar-en 2x1 pack eskaintza Bartzelonaren bisitaren aurrean

Bartzelona ahalguztiduna jasoko du domekan, 14:00etatik aurrera, SD Eibarko emakumezkoen lehen taldeak F Ligako 20. jardunaldiko partiduan. Aurkari ezin zailagoa izango dute Yerai Martinek zuzentzen duen taldekoek, baina itzaropentsu hartuko dute erronka, norgehiagoka aprobetxatuz hainbat ikasbide ateratzeko bertatik. Denboraldi honetan partidu bakarria galdu duen liderrari aurre egingo dion talde armagina sailkapeneko 10. postuan dago une honetan, 21 punturekin, eta jaitziera zortzi puntura du.



Putellas eta Bonmati, Bartzelonako izarrak.

Neurketa horren harira, SD Eibar-ek salgai jarri du promozio

berezi bat F Ligako hurrengo bi partiduetarako. Ateratako 2x1 promozioak FC Barcelona eta Levante Badalonaren aurkako partiduak hartuko ditu barne: lehenengoa domeka honetan bertan jokatu da, 14:00etan; Levante Badalonaren aurkako partidua, bestalde, martxoaren 16an, arratsaldeko 18:00etan hasita. Sarrera berezi hori salgai dago Orsaixanen eta, horrez gain, leihatilan eskuratu ahal izango dira domeka honetan bertan ere, partidua hasi baino bi ordu lehenagotik (12:00etatik aurrera erosi ahal izango dira).

Bihar hasiko da Euskal Jaiko Eibarko V. Pala Txapelketa Astelenan

Azken urteotako Euskal Jaiaren egitarauaren barruko kirol modalitate horretako bosgarren edizioa asteburu honetan abiatuko da eta maiatzaren azken asteburuan amaituko, finalak Euskal Jaiaren barruan jokatzeko. Biharkoan jokatuko da lehenengo jardunaldia, Astelenak goizeko 09:00etatik aurrera hartuko dituen bost partidurekin: Olano-Agirrebeña vs Seleta-Itxurri; Sarobe-Beton vs Gisasola-Sologaitua; Romarate-Axi vs Txiplo-Unda; Baroja-Bengoetxea vs Fer-Letu; eta Larrinaga-Asier vs Azeri-Gereñu II. Etzi goizean partidu bakarra



jokatuko da, Urizar-Lete eta Zurdo-Irizar bikoteen artean, 11:30etik aurrera. Txapelketa zapatu eta domeketan (goiz eta arratsalde) jo-

katuko da, sarrera doanekoa da eta ateak zabalik egongo dira modalitate horrekin gozatzeko duten guztientzat.



Hiru brontzezko Eibar Igerixanekoentzat Euskal Herrikoaren infantil mailakoan

Aurreko asteburuan Irungo Azken Portu kiroldegian jokatutako Neguko infantil mailako Euskal Herriko Txapelketan Eibar Igerixanek hiru ordezkarik izan zituen eta beste hainbat dominarekin bueltatu ziren. 15 urteko Itsaso Castrillok, Elaia Mujikak eta Alba Sierrak lehiatu

zuten txapelketa horretan eta lehen biek aurreneko postuen borrokan izan ziren, dominak lortzeraino. Castrillok brontzezko domina irabazi zuen libre erako 800 eta 1.500 metrokoetako probetan, eta Mujikak gauza bera egin zuen 200eko distantzian.

Eibar Rugbyk partidu garrantzitsua jokatuko du etzi Unben

Oso une txarrean harrapatu du errugbiko gure herriko talde nagusia lehiaketaren bigarren faseak. Lehenengoan ia partidu guztiak irabaztetik, bigarren honetan porrot bat bestearen ondoren jasotzen diharduelako Ohorezko B Mailako Eibarko ordezkariek. Fase honetako lehenengo norgehiagokan Turia - Les Abellesekin 60-0 galdu eta gero, aurreko zapatuan 5-25 amore eman zuten Eibar Rugbykoek Burgosko Pingüinos Flor de Escocia taldearen aurrean. Oraingoan Unben



jokatuko dute berriro, Olímpico de Pozuelo liderraren aurka. Lehen fasean madrildarrak baino gehiago izan ziren Eibar Rugbykoak, baina Pingüinos taldeari ere irabazi zieten

aurreko fasean eta azken partiduan ez zuten asmatu gauza bera egiten. Domekako emaitzaren arabera, eibartarrak multzoko lehen biren artean ez badira sailkatzen beste multzoko lehen bi postuetan sailkatutako batekin jokatu beharko du aurrera egiteko txartelaren bila. Gauzak asko zaildu zaizkio talde armaginari Ohorezko Mailara igotzeko helburuari begira, denboraldi hasieran jarraian lortutako sei garaipenetik azken hirutan porrota jasotzera pasatu baita taldea.

47. Udaberri Sariarekin abiatuko da etzi Txirrindulari Elkartearen denboraldia



Domekako lasterketaren kartel berria.

Domekan jokatuiko den junior mailako Udaberri Sariaren 47. edizioarekin hasiko da Eibarko Txirrindulari Elkartear denboraldi berrirako prestatutako egutegia. Gurean hasi eta amaituko den lasterketak 80 kilometro izango ditu eta bidean 3. Mailako Itziarko gaina gaintutako dute bitan. Proba goizeko 09:45ean ipiniko da martxan Anbulatorioaren aurretik eta, gutxi gorabehera, handik bi ordura amaituko da T. Etxebarria kalean. Txirrindulariek Zumaiarainoko joan-etorria egin beharko dute, Oikina, Aizarnazabal, Iraeta eta Arroatik pasatuz.

Mujika garaile eta Osoro bigarren jokatutako bi duatloietan

Vianako duatloian, gainera, lau lehenengoetatik hiru Eibarkoako izan ziren. Peñota Dental Alusigmako Mikel Mujikak irabazitako proban Pello Osoro taldekidea bigarren izan zen eta Txomin azken horren anaia laugarren sailkatu zen. Eta San Vicente de la Sonsieran jokatutako duatloian Peñota Dental Alusigmako bi triatletek postu horiek errepikatu zituzten,



helmugan berriro ere lehenak izanik orden horretan. Hasiera ezin bikainagoa duatloi denboraldia-ri eman diotena, beraz. Asteburu honetan Huescako Graus herrian jokatuko den Espainiako Duatloi MD proban hartuko dute parte lasterkari horiek.

Xakeko talde nagusiak Gorenerako igoera fasea jokatuko du

Lehenengo fasea amaitu eta gero, Gipuzkoako taldekako 1. Mailako taldeak, multzoko buru amaitu duenez sailkapenean, Maila Gorenerako igoera fasea jokatuko du. Aratosteak direla-eta asteburu ho-

netan ez da partidarik izango, baina hurrengoan hasiko da igoera fasea 1. Mailako taldearentzat. 3 Mailan jokatzen duten Deporrek beste bi taldeek azken jardunaldia izango dute asteburu horretan.

Bestalde, Azkoitian jokatutako Gipuzkoako eskolarteko txapelketan xake eskolako zazpi ordezkari izan dira parte hartzen. Mikel Saenz 2. postuan sailkatu zen eta Yeray Fernandez bosgarrena izan zen.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

SD EIBAR - Barcelona (etzi, 14:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Cartagena - SD EIBAR (gaur, 20:30)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - UD Logroñes (etzi, 12:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Rayo Vallecano (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Alaves C - SD EIBAR C (bihar, 26:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

Bizkenseskak - SD EIBAR C (etzi, 16:00)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Ilixtxa (gaur, 19:30)

Zumaiako - EIBARTARRAK (bihar, 17:45)

Erregionaleko 1. Maila (Kopa)

URKI B - Aloña Mendi B (bihar, 11:30)

Jubenilen Ohorezko Maila

SD EIBAR - Aurrera Vitoria (bihar, 12:45)

Jubenilen Nazional Liga

Tolosa - SD EIBAR B (bihar, 17:00)

Jubenilen Euskal Liga

URKI - Leioa B (etzi, 18:30)

Kadeteen Euskal Liga

SD EIBAR - Antiguoko (bihar, 10:30)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Berango Urduliz (bihar, 18:30)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

Hondarribia - MEK EIBAR (bihar, 18:45)

FRRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko B Maila

EIBAR RT - Olimpico Pozuelo (etzi, 12:00)

SASKIBALOIA

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

ARTES. JUANTXO - Goierrri (bihar, 10:30)

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Drunkat Hoops (gaur, 19:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Metropole - URBAT (bihar, 13:00)

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

URBAT B - Urgara Txingudi (gaur, 21:15)

“Oso irudi geometrikoak egitera ohituta nago eta proiektu hau nire mundu karratutik irteten zen”

NAIARA SARASKETA • Diseinatzaile grafikoa



Aste honetan hasi dira Antzerki Jardunaldiak Toni Acosta aktoreak eta Juan Carlos Rubio zuzendariak Irene Hernando aktore eibartarrarekin martitzenean izan zuten solasaldiarekin. Aurten, jardunaldiak iragartzeko, Naiara Sarasketak egindako kartela erabili dute, arte plastikoak eta arte eszenikoak maisuki uztartuz.

Ez da lehen aldia Naiara Sarasketaren kartel batek herriko jai edo ekintza kultural bat iragartzen duena. Diseinatzaile grafikoa da Sarasketa eta ohituta dago irudiekien jolastera, baina oraingoan are gehiago landu du arlo artistikoa eta esangura berezia eman dio gurean hain ikonikoa den ekintza kulturalari.

Nola sortu zitzaizun Antzerki Jardunaldien kartela egiteko aukera?

Udaleko kultura sailetik deitu zidaten proposamena eginez. Itxura denez, Eibarko artista batek egin ohi du Antzerki Jardunaldien kartela, urte batean gizonezko batek eta hurrengoan emakumezko batek, txandaka. Primeran dago, arte plastikoak eta eszenikoak uztartzen dituztelako. Bestalde, egia ere bada Eibarko Antzerki Jardunaldiak hemendik kanpo iragartzera joaten direnean hemengo kartelek atentzioa ematen dutela, besteak adimen artifizialarekin edo dena delakoarekin eginda egoten direlako. Hemen herriko artistei ematen zaie aukera. Oso pozik hartu nuen proposamena. Lanez gainezka nenbilen, baina egin beharreko zerbait zela ikusi nuen.

Zer lortu nahi zenuen?

Kulturakoei zirriborro batzuk erakutsi nizkien zenbait ideiarekin eta luze mintzatu nintzen horiek azaltzen. Hasieran isil-isilik geratu ziren, baina gustatu zitzaie la esan zidaten eta zirriborroetatik zerbait finkoagoa garatzen joan nintzen. Eskuz egindako kaligrafia erabili nahi nuen eta, orokorrean, esku kutsua eman nahi nion. Antzerkian pertsonak beste pertsona batzuentzat antzezten ari dira, eta hori islatu nahi nuen.

Zirriborroetatik azken emaitzara alde handia egon da?

Bai! Hori bai, ideia nahiko antzekoa zen. Diseinatzaile grafikoa naiz eta oso irudi geometrikoak eta bektorialak egitera ohituta nago, eta proiektu hau nire mundu karratu horretatik irteten zen. Orduan, antzerki grekoari begira, musak etorri zitzaizkidan burura eta emakume bat irudikatu nahi izan nuen. Antzerkia barrenetik ateratzen dena kanporatzea da eta, beraz, emakume horri teloi moduko bat zabaltzen zaio ikusleari ongi etorria emanez. Bestalde, forma arkitektoniko eta eskultorikoak ere gustatzen zaizkit, eta hortik datoz eskuak edo maskara afrikar bat, adibidez. Modernismo kutsuak ere baditu. Uste dut ikusten dela diseinatzaile grafikoa naizela (barreak).

Nola sentitu zara kartela egiten?

Modu naturalean hartu dut. Izan ere, asko pentsatuko



Naiara Sarasketaren kartelak iragartzen ditu aurten Antzerki Jardunaldiak. EKHI BELAR

izan banu, ikusiko nuke toki askotan erakutsiko dela, baita Eibartik kanpo ere. Oso gustura hartu dut. Gainera, Kultura sailekoekin oso hartu-eman ona eduki dut. Lan asko egitera ohituta nago eta beste lan bat gehiago izan da, baina egia da maitasunarekin egiten duzula, herriko gauza bat delako. Gainera, Antzerki Jardunaldiak oso ikur garrantzitsuak dira. Agian ohituta gaude, baina izen eta antzezlan handiak etortzen dira Coliseora.

Antzerkia gustuko duzu?

Bai. Ez naiz asko joaten, baina kuadrillan beti dago baten bat antzerkira joateko plana proposatzen duena eta beste guztiak animatu egiten gara. Aurten, kartela zer iruditzen zitzaien galdetu diet eta eurak: “Zein antzezlan ikustera joango gara?”. Aizue! (barreak) Azkenean, hiru antzezlan ikustera joango naiz. Gainera, Ane Pikaza aktorea laguna dut eta ikusteko aukera izango dut.

Ez da zure kartelak herriko hormetan ikusten ditugun lehen aldia.

2001ean eta 2021ean San Andres jaietako kartel-lehiaketa irabazi nuen, eta txikitatik Dibujo eta Margo Es-

“Arkatzak paperaren gainean kras-kras egiten duenean sentitzen duzun hori beste kontu bat da”

kolan ibili izan naizenez, lehiaketaren bat ere irabazi nuen orduan. Kartelak asko gustatzen zaizkit, asko gustatzen zaidan formatua da.

Zure ohiko lanaren zurruntasunetik irteten laguntzen dizulako agian?

Kartelek ilustraziorako joera edukitzen dute. Egia da nik beti joera hori izan dudala, ilustrazioa asko gustatzen zaidalako, eta lan askotan beti erabiltzen dut eskuz egindako zerbait. Ez naiz ilustratzailea, baina asko gustatzen zait. Eskuz diot, baina iPad-a erabiltzen dut. Oso erreminta ona da, baina egia da arkatzak paperaren gainean kras-kras egiten duenean sentitzen duzun hori beste kontu bat dela.

XLVIII. ANTZERKI JARDUNALDIAK



martxoak 2 (domeka)

“Check-out”

Cía Adrián Conde (Asturias)

ZIRKOA-CLOWN / 60'

Antzeilea: ADRIÁN CONDE

Zuzendaria: ANACELIA ALVAREZ



Eugenioaren bizitza hotel bateko hallean igarotzen da. Komedia bisuala, zinema mutuan inspiratua. Familiaren garrantziaz hausnartzera eta denbora zeri eskaintzen diogun pentsatzera bultzatzen duen istorioa da. 2024ko Fetén saria jaso zuen antzele onenari eta Oh! saria haurrentzako ikuskizun onenari. Emozioen kudeaketa, erresilientzia, galera eta familia lantzen ditu.

Coliseo (19:00)



Lanak Espainiako garai historiko baten errepasoa egiten du, gaurkotasuna duten gai batzuk eszenaratu. Guztia lengoai bisual eta estetiko berezi batekin. Testu klasikoek keinu-antzerkia, clown-a, zirkoa, umorea eta zuzeneko musika gehitzen zaie, betiere historia zoro baten narrazioaren zerbitzura. Bi mende hartu zituen Espainiako historia marrazten duen bidaia.

martxoak 6 (eguna)

“La loca historia del Siglo de Oro”

La Escalera de Tijera (Extremadura)

ZIRKOA-ANTZERKIA / 90'

Antzeleak: LOLA SANCHEZ, DANI JAEN,
ROBERTO CALLE, CRISTINA ZARANDIETA

Zuzendaria: JAVIER URIARTE

Coliseo (19:00)

martxoak 7 (barixakua)

“Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantán”

La Dramática Errante (Bizkaia)

TRAGIKOMEDIA / 90'

Antzeleak: ANE PIKAZA, AITOR BOROBIA,

LOLI ASTOREKA, PATXO TELLERIA,

EGOITZ SANCHEZ, IDOIA MERODIO

Zuzendaria: MARIA GOIRICELAYA



Bidaia bat, bizitzari alaitasunez aurre egitera eta bizitzaren amaiera nolakoa izango den galdetzerara bultzatzen gaituena. Norbere mugak gainditzeari, samurtasunari eta gizatasunari buruzko istorioa. Mundu hau minez eta sufrimenduz utzi zuten guztiei egindako kantu bat ere bada, azken etapa horretan irribarrea inoliz galdu gabe laguntzen duten guztiei egindako aintzatespena.

Coliseo (19:00)



Play Back lehiaketa domekan

Aratosteetako domekan, martxoak 2, gaztetxoek txanda izango da, LH5. eta 6. mailetako ikasleentzat Play Back lehiaketa antolatu baitu ...eta kitto!-k. Aurten 19 taldek eman dute izena eta nor baino nor arituko dira 17:00etatik aurrera Untzagako karpan. Hiru sari banatuko dira, mozerro, interpretazio eta koreografia onenari, baina ez da inor esku-hutsik geldituko, dezentzat egongo baita oparia. ...eta kitto!-tik adierazi dute parte-hartzaileek 16:30erako egon beharko dutela Untzagan. Idoiarengatik galdetu beharko dute.



Barixakuak Jolasian martxoaren 7an itzuliko da berriro

Umeentzat kalean jolasak antolatzen dituen Barixakuak Jolasian ekimena martxoaren 7an itzuliko da berriro auzoetara aratosteetako jaiak behin pasata. Joan den astean Urkizuko parkean egin ziren otsailko azkeneko jolasak eta 7an Txaltxa Zelain egingo dira. Betiko moduan 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat dira, 17:00etatik 18:00etara.

Euskal musikaren zerrenda banatu du ...eta kitto!-k tabernetan



Euskeraz primeran! kanpaina herriko ostalaritzara eramango du beste behin ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Aratoste jaietan murgilduta gauden honetan, euskal musikaz osatutako zerrenda partekatu du ...eta kitto!-k Eibarko ostalariekin, jaietan ere euskarazko abestiak entzun daitezten tabernetan. Denda eta tabernetan euskararen erabilera bultzatzea du helburu Euskeraz Primeran! ekimenak, eta hori lortzeko hainbat ekimen antolatzen ditu urtean zehar. Aurreko astean neguko merkealdien azokan izan zen, erosketen testuinguruan euskararen erabilera sustatzeko, eta oraingoan herriko tabernetan euskal giroa jarriko du.



Aratoste pregoia irakurriko du gaur Jon Alonsok

Gaur iluntzean, Kaldereroen etorrerarekin batera, Aratoste pregoia antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. 20:00etan irtengo dira kaldereroak Urkizutik eta, Depor parera ailegatzera irakurriko da pregoia. Aurten Jon Alonso Eibarko abeslari ezagunak izango du horren ardura, estraineko aldiz Deporreko balkoitik.



Euskaraldirako eratu den gazte plataformarekin bat egiteko gonbidapena

Maiatzaren 15etik 25era Euskaraldiaren laugarren edizioa burutuko da Euskal Herri osoan, *Elkar mugituz egingo dugu* goiburuari jarraituta, eta hori prestatzeko lanean hasita daude Eibarren Akebai eta herriko beste eragile batzuk. Hainbat bilera egin eta gero, aurreko astean aurkeztu zuten Eibarko Euskaraldiaren Hamaikakoa zeintzuk osatuko zuten adostu zuten guztiek elkarrekin. Horrez gain, gure herriko gazteak egitasmora erakartzea ezarri dute helburu nagusi modura, Euskaraldian beraien parte-hartzea handitu nahi dute eta. Asmo horrekin otsailaren erdialdera gazte talde batekin bilera egin zuten, zer lortu nahi duten azaldu eta helburu hori betetzeko zer egin daitekeen elkarrekin pentsatzeko. Bilera horren emaitza berehala etorri zen, han bertan erabaki baitzuten Eibarko Euskaraldiaren gazte plataforma eratzea. Adierazi dutenez, plataforma hori gazteek beraiek sortuko dute, eta kudeaketa ere beraien esku egongo da: “Herriko 30 urtetik beherako gazte guztiak daude gonbidatuta plataforman parte hartzera. WhatsApp talde bat ere sortu da eta, bertan sartu nahi duenak karteletan eta goiko irudian dagoen QR kodea eskaneatuta egin dezake bat. Asmo nagusia gazte-taldean arteko bileratxo bat antolatu eta, denen artean, Eibarko gazteria egitasmora hurbiltzeko egin daitekeenaz eztabaidatzea da”.

Euskararen erabilera aktibatuzko mugimendu soziala da Euskaraldia, euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala, Euskal Herri osoan eragiteko sortua. Mugimenduak herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nahi du, 11 eguneko praktika sozial masibo bateratu baten bidez.



Luzaketa tailerra egingo da bihar Ipuruako merkatuan

Asteburu honetan luzaketa tailerra egingo dute Ipuruako Merkatu Plazan, Nuria Rodriguezekin. Bihar (zapatua) izango da, eta bi ordutegi daude aukeran: lehena, 09:30etik 10:15era bitartean, eta bigarrena 10:30etik 11:15era. Tailerrean parte hartzea doan da, baina antolaketa-lanak errazte aldera, aurretik izena eman beharra dago. Horretarako 672275578 telefono zenbakira deitu, edo mezua idatzi nuriarodriguezibarra@gmail.com helbidera.



Sormen tailerrerako izen-ematea Andretxean izango da

Martxoak 8 Lantaldearen eskutik Maite Arriaga Arri-zabalaga eibartarrak emango duen sormen tailerreko izen-ematea Andretxean egin beharko da, eta horretarako epea zabalik dago. Tailerra, berriz, Arrate Kultur Elkartearen izango da, martxoaren 11n eta 12an, 09:00etatik 13:00etara, eta saioak elebidun (euskaraz eta gaztelaraz) izango dira. Amaieran parte-hartzaileen lanekin erakusketa egingo da, Topalekun, martxoaren 14tik 30era.



Hika konpainiaren 35 urteak ospatzeko dokumentala

Aste honetan abiatu diren 48. Eibarko Antzerki Jardunaldien baitan, eguaztenerako *35 urte eszenara begira* dokumentalaren proiektzioa eskainiko dute, 19:00etan Coliseo antzokian (sarrera doan da). *Antzerkia Pantailetan* izenpean, Gipuzkoako Hika Teatroa konpainiaren 35 urteko ibilbidea jasotzeaz haratago, “ofizioari buruz belaunaldi ezberdinen iritziak, egonezinak eta, batez ere, kezkak eta ilusioak partekatze saiakera” dela dio Agurtzane Intxaurrega taldeko zuzendari eta sortzaileak.

Hain zuzen ere, belaunaldi berriekin ofizioaz hitz egiteko bulkada sentitu ondoren, bi sortzaile gaztekin elkartuko da Intxaurrega, Donostiako Antzoki Zaharrean: Kamikaz kolektiboko Amancay Gaztañagarekin (hamar urteko ibilbidea antzerkian) eta Mari Zaunka kolektiboko Oihana Vesgarekin (lau urteko ibilbidea dantza arloan). Hiru artisten arteko elkarrikeria islatzen duen lana da, arte eszenikoen inguruko dokumentala, iragana, oraina eta etorkizunari buruzko gogoeta.

Aratosteetako argazki lehiaketa deitu dute

XXVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu du aurten ere Arrate Kultur Elkarteak. Aratosteekin lotura duten argazkiekin hartu daiteke parte, eta koloretan zein zuri-beltez egingako irudiak onartuko dituzte. Lehiaketarako lanak eguenzuri2025@gmail.com posta helbidean jasoko dituzte (bidaltzeko azken eguna martxoaren 16a izango da).



Urkari taldearen kontzertuarekin ospatuko dituzte Aratosteak Koskorren

Heavy festa hartuko du gaur Koskor tabernak Urkari talde eibartarraren eskutik, Aratosteak eta, bereziki, gaur Barixaku Erregularra dela ospatzeko, Koskor tabernak antolatu duen kontzertuan, 20:00etan hasita, heavy metala egiten duen Urkari taldea zuzenean arituko da bertan, eta kontzertuarengatik ez da sarrerarik ordaindu behar. Eibarko musika talde hori Aitor Markinak (ahotsa), Xabier Pagueyk (gitarra), Andoni Bilbaok (gitarra), Aitor Izurietak (bateria) eta Josu Agirrek (baxua) osatzen dute eta, besteak beste, Legarreko musikariek antolatuta Walter Tuzzeoren omenez Untzagan egin zen ekitaldian hartu zuen parte.



Su Ta Gar taldearen fanzinea Zaizoi tabernan dago salgai

Su Ta Gar taldearen jarraitzaile sutsua den Urko Ansa markinarrak taldeari eskainitako fanzinea sortu du eta, bere herrian ez ezik, orain Eibarren ere erosi daiteke. Interesdunek Zaizoi tabernan aurkituko dute fanzinea, 5 eurotan salgai. Harrera oso ona ari da izaten, egileak lagatako ale guztiak egun gutxitan saldu eta gehiago ekartzeko eskatu behar izan diote eta.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5			6				7	
6				2	4		3	
					3	6	4	8
1				5				
8								9
			1					7
2	9	8	3					
	5		4	1				3
	4				7			5

5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8
1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4

soluzioa

S U D O K U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

4	7			5	8		
	1		6				5
			4	2			7
		2					1
8							3
	5				7		
	9			7	1		
6				8			2
		1	5			9	8


soluzioa

4	7	5	8	1	6	2	3
1	6	2	3	8	4	7	5
2	3	8	4	7	1	5	6
3	4	7	1	5	6	2	8
8	1	5	6	2	3	4	7
5	6	2	3	8	4	7	1
6	7	1	2	3	4	5	8
7	8	9	1	2	3	4	5
8	9	1	2	3	4	5	6
9	1	2	3	4	5	6	7

**AURKITU 8
EZBERDINTASUNAK**



L A B I R I N T O A



Otsailak 28 - Martxoak 6

BARIXAKUA 28

UNI ENCOUNTER

16:00/Bihar 20:00ak arte Eleskyren kontzertua. Hitzaldi eta tailerrak: teknologia, enpresak, hezkuntza, software librea, ekintzailetasuna, zibersegurtasuna, adimen artifiziala eta gehiago. Game Jam. LAN Party (30 ordu). Esports lehiaketak. Mahai-jokoak-Drone Soccer. Doan. Uni Eibar-Ermua (Hezkuntza Esparrua).

ARATOSTEAK (BARIXAKU ERREGULARRA)


20:00 Kaldereroen kalejira, Urkizun hasita Untzagaraino. Parte-hartzaileak: Kezka Dantz Taldea,... eta kitto! Euskara Elkarte, Txolarte, Ustekabe fanfarrea, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak, Lagun taldea, Untzagako nagusien egoitzako abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Jainagaren trikitixa eskola. **20:30** Aratosteetako pregoia, Jon Alonsoren eskutik. ...eta kitto!-k eta Kezkak antolatuta. Toribio Etxebarria (Klub Deportiboko leihotik).

MUSIKA

20:00 Kontzertua. "La Otra Kalle". Doan. Ametsa Gin Bar.

MUSIKA

20:00 Heavy Metal Festa, Urkari taldearekin. Doan. Koskor taberna.



ZAPATUA 1

LUZAKETAK

09:30/10:15 eta 10:30/11:15 Luzaketa tailerra, Nuria Rodriguezen eskutik. Doan. Ipuruako merkatu plaza.



ARATOSTEAK

12:30 Rock musika, Eibarko kaleetatik. Aratosteetako kuadrillen kalejira, Ustekabe eta Sin Juicio fanfarreekin. Ibilbidea: Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga. Photocall-a Untzaga plazan. **16:30** Puzgarriak Errebal plazan.

19:00 Umeendako berbena Mugi Panderoa taldearekin, Untzaga plazan. Photocall Untzaga plazan.

19:30 Animazio musikala, Latuna Bando txaranga-rekin. Eibarko kaleetatik.

19:30 Aratosteetako lehiaketetako irabazleei sariak banatzeko ekitaldia. Untzagan.

23:30 Dantzaldia, Mugi Panderoa taldearen eskutik, Untzaga plazan.

TAILERRA

17:30/19:00 Arkitektura tailerra, haurrentzako, Maushaus-en eskutik. Doan. Ipuruako merkatu plaza.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

DOMEKA 2

TXIRRINDULARITZA

09:45 Udaberri Probaren 47. edizioa (junior). Toribio Etxebarria kaletik abiatuta.

ARATOSTEAK

11:00 Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik.

17:00 Umeendako Playback Lehiaketa (LH 5-6 mailetakoko ikasleentzat), ...eta kitto!-k antolatuta. Untzaga plaza.

18:30 DJ Arno. Untzaga plaza.

ANTZERKI

JARDUNALDIAK

17:00 "Check-out" (Adrian Conde konpainia, Asturias). 5 euro. Coliseo.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, HHko umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 3

HITZALDIA

18:00 "Zaintza sistema publiko komunitarioa. Hausnarketa feminista batzuk", Miren Aranguren Etxarteren eskutik. Antolatzailea: Martxoak 8 lantalde. Sarrera librea. Andretxea.

MARTITZENA 4

ARATOSTEAK

17:00 Umeendako jolasak, Astixaren eskutik. Untzaga.

18:30 Sardinen entierri txikia, Jainagaren trikitixa eskolakoekin.

EGUAZTENA 5

AGURTZEN

18:00/20:00 Bizi-testamenuaren inguruko informazioa, Ikasten elkartearen eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

ANTZERKI

JARDUNALDIAK

19:00 Antzerkia pantailetan: "35 urte eszenara begira" dokumentala (Hika, Gipuzkoa). Doan. Coliseo.

EGUENA 6

HITZALDIA

18:30/20:00 Clown jarduerak, helduentzat. Doan. Ipuruako merkatu plaza.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00 Hitzaldia: "Mendia eta segurtasuna", Zigor Egriaren eskutik. Klub Deportiboa.

ANTZERKI

JARDUNALDIAK

19:00 "La loca historia del siglo de oro" (La Escalera de Tijera, Extremadura). 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

ERAKUSKETAK

Martxoaren 23ra arte:

- "Kokapena denbora errealean", ANE XIXI eta VIVIANE STRAUB artistak. (Portalea).

Martxoaren 30era arte:

- "EIBARKO ITSAS ABENTURA". (Eibarko Armagintzaren Museoa).

Apirilaren 29ra arte:

- "BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK". (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **1ean:** 19:45, 22:30 (2 Aretoa)
- **2an:** 20:00
- **3an:** 19:30

“María Callas”
DRAMA



2024/Italia/123'
Zuzendaria: Pablo Larrain
Aktoreak: Angelina Jolie,
PF Favino, Alba Rohrwacher
Biografikoa / Opera / 70 urteak

2 ARETOA

- **1ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **2an:** 20:00
- **3an:** 19:30

“Capitán América”
FIKZIOA



2025/AEB/119'
Zuzendaria: Julius Onah
Aktoreak: Anthony Mackie,
Harrison Ford, Danny Ramirez
Superheroiaik / Komikia / Sekuela

ANTZOKIA

- **1ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **2an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **3an:** 19:30

“Amenaza en el aire”
AKZIOA



2025/AEB/90'
Zuzendaria: Mel Gibson
Aktoreak: Mark Wahlberg,
Michelle Dockery, Topher Grace
Thriller / Abioiak / Epaiketa

ANTZOKIA

- **1ean:** 17:00
- **2an:** 17:00 (2 Aretoa)

“Paddington”
ABENTURA



2024/Erresuma Batua/106'
Zuzendaria: Dougal Wilson
Aktoreak: Olivia Colman,
Antonio Banderas, H. Bonneville
Komedia / Fantastikoa / Hartzak

Koro
Angoitia Goikoetxea

10. URTEURRENA
2015/03/03

10 urte zu gabe,
10 urte bihotza
zaurituta. Zure
maitasuna berdinduko
duenik ez dago.
Gure bihotzetan betiko.

IZUGARRI MAITE ZAITUGU
- ZURE FAMILIA -

FUNEUSKADI
Grupua Antzokia

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16

Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leloa - Getxo - Sestao - Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **LAIA**, hillaren 25ian 6 urte bete zenduazten eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MARTIN**, zure 10. urtebetetizian! Ikaragarri maitte zaittugu! Aita, Ama eta Libe.



Zorionak, **MARGOT!** 4 urte honezkero, otsaillaren 26ttik!! Oso ondo pasa!! Etxekuen partetik!!



Zorionak, **EUKEN!** Otsaillaren 26xan 12 urte bete dozuz eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Paule, Xuhar eta Julenen partez.



Zorionak, **JON**, martxuaren 4an 9 urte beteko dozuz eta. Ondo pasa eguna!! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JON!!!** Atzo 10 urte bete zenduazten eta. Musu potoluak famelixakuen eta, batez be, Maialenen partez!



Zorionak, **AITOR**, zure 11. urtebetetizian!! Eguenzuri egunian itzaliko dozuz kandelak aurten! Patxo pill bat.



Zorionak, **AIORA**, gure etxeko txispita! Martitzenian 16 urte beteko dozuz! Patxo haundi haundixa amatxo, aitatxo eta Oihenarten partez.

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

PUBLI RESA
objeto publicitario

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behea

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Abontzan. 625071888 eta 626528738.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gaeuz edo ospitalean ere) eta etxeak edo obrak garbitzeko. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta jatetxeetan jarduteko. 631805746.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 603458623.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (arreta sozio-sanitario ziurtagiria). 624828670.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, jatetxean jarduteko eta garbiketarak egiteko. 604205271.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. 653075865.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 646778839.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, eta baita maskotak ere. 602626391.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxean laguntzeko. Orduka. Esperientzia. 680526228. Nuri.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Erreferentziak. 632288100.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta gaeuz ere. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta gaeuz ere. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta dendarri bezala. 613391576.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 747444786.
- Neska eskaintzen nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 626444649.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Erizain-laguntzaile eta arreta sozio-sanitario tituluekin. 632938326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak pasiatzeko. 617571210.

4.2. Langile bila

- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batearako. Jardun partziala, adostu beharrekoa. Bidali CV: hortz-klinika.4@gmail.com
- Emakumea behar da adin txikiko menpekoa zaintzeko. Sozio-sanitario titulua edo

- antzekoarekin. Bidali CV: empleoeibar@gmail.com
- Kamarera/o behar da jatetxe batean. Zapatu arratsalde eta gau eta domeka osoa libre. 627778980. Feli.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.2. Eman

- Bainuontzirako aulki birakaria oparitzen da. 615761830.



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

**Maiatza/Ekaina/Uztailako DEIALDIA
AZTERKETAK** Eibar, Durango eta Arrasaten

MATRIKULAK
Martxoaren 3tik 28ra

STARTERS	ekainak 7 (LARUNBATA)	68€
MOVERS	ekainak 7 (LARUNBATA)	70€
FLYERS	ekainak 7 (LARUNBATA)	73€
KET (For Schools)	ekainak 7 (LARUNBATA)	99€
PET (For Schools)	maiatzak 31 (LARUNBATA)	106€
PET (For Schools)	ekainak 7 (LARUNBATA)	106€
PET	ekainak 14 (LARUNBATA)	106€
FCE	maiatzak 31 (LARUNBATA)	195€
FCE	ekainak 14 (LARUNBATA)	195€
FCE FS	ekainak 14 (LARUNBATA)	195€
FCE FS	ekainak 21 (LARUNBATA)	195€
FCE FS	ekainak 28 (LARUNBATA)	195€
CAE	maiatzak 31 (LARUNBATA)	205€
CAE	ekainak 21 (LARUNBATA)	205€
CAE	uztailak 5 (LARUNBATA)	205€
CPE	ekainak 7 (LARUNBATA)	215€

Informazioa eta Matrikulak

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83
	Idiomaster	943 79 07 84
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53
EIBAR:	Link Idiomas	943 20 39 59
	Target Schools of English	607 83 36 13
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32
ELCACHAR:	Key Academia de Inglés	943 74 30 44
	ILS	943 74 40 40
OSATE:	Sounds Great	943 78 20 91
DEBA:	English Square	648 26 82 06
	North Street English	652 44 86 46
DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
	Ibaizabal Ikastola	94 621 58 77
MARKINA:	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
ZUMAYA:	Golden Gate	943 86 50 20
MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

Nico, Donostia
24/12/4 Donostia Ospitalea

Gipuzkoa egunero sortzen da.



Pertsonen ongizate integral handieneko
lurraldea izatea da gure asmoa.

GIPUZKOA
Ekin, Zaindu, Bizi.



EUSKARAREN SOZIALIZAZIOA ETA TRANSMISIOA

MINTEGIA

 Martxoak 25, asteartea
 SD Eibar-eko prentsa aretoan

- 08:45:** Materiala jaso.
- 08:55:** Ongietorria eta agurra.
- 09:10:** **“Jendaurrean.eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gida”.**
Asier Basurto Arruti, Soziolinguistika Klusterra.
- 10:00:** **“Euskararen aukerak eta erronkak adimen artifizialaren garaian”.**
Aitzol Astigarraga Pagoaga, Orai NLP zentroko koordinatzailea.
- 10:50:** **“Giza baliabideen kudeaketa euskararen normalizazioaren sektorean: talentoaren atxikipena eta pertsonen motibazioa”.**
Arrate Illaro Etxeberria, Hizkuntza normalkuntzako teknikaria.
- 11:40:** ATSEDENALDIA (ARGAZKIA ETA GOSARIA).
- 12:20:** Kirolean eta kulturaren, zer?
- 12:25:** **“Euskararen ibilbidea SD Eibar-en”.**
Arrate Fernandez, Komunikazio eta Protokolo arduraduna eta Mikel Larrañaga, SD Eibar Fundazioko Presidente ordea.
- 12:50:** **“Urak egingen du bide”.**
Alex Aginagalde Lopez, Pantailak Euskaraz-eko bozeramailea.
- 13:40** Hausnarketa-dinamika.
- 13:55** Amaiera eta agurra.

IZEN-EMATEA ZABALIK



Antolatzailea

 **eta kitto!**
euskara elkarte

Babesleak



Laguntzailea

